



DONOSTIKO

EUSKAL INDAR-NEURTZEETAN

EGINTZA

EUSKAL-itz jostaldien Batzarrea dator gaur adieraztera leku ontan arkitzen diran entzule guztiai, zer nolakua dan aurten idazlarien indar-neurtzeetan, batzar epalle bereziak erabaki duben sari emaldia.

Arreta aundiz ikusi ondorean aurkestu diran moldaera guziak, Batzarreak erabaki du era ontan:

Lenbiziko zatian irabazi du saria Emiliano Mujika Laskibar jaunak, «Gudaldia» izentzat duela egin duen idazki egokia gatik.

Bigarren zatian eraman du saria Juan Mujika Laskibar jaunak, «Egi egia» izendatutako neurtitz apain eta ederra gatik.

Eta aipamen onragarriak, Pedro Enbeitia, Bitor Garitaoandia, Luis Jauregi (oni bi), eta Bernando Jesus Elizondo jaunai, beren neurtitz egoki: «Artzai berria», «Ama neke-tsua», «Gogalbena», «Ama Miren'eri lore ederrenak» eta «Irargia» izendatua gatik.

Azkenik, laugarren zatian irabazi du saria Juan Inazio Garmendia jaunak, «Euskal eche» izentzat duela idatzi duen idazki jator eta egokia gatik.

Donostian 1917^{-garren} urteko Abendua'ren 21^{-an}.

TORIBIO ALZAGA

Goarpelaria.

ADRIÁN DE LOYARTE
Batzar-burua.